

**GAZTEENTZAKO MATERIALAK****“ERDU - TE INVITO”****1. Sarrera (oinarriak).**

- SENTSIBILITATEZ EGIN BEHAR DUGU BIDEA, bost zentzumenak aktibatu behar ditugu, topaketarako prestatu, pobrezia edo bazterkeria egoeran dauden pertsonengana modu natural batean gerturatu eta justiziaren alde lan egin.
- Komunitate solidarioa izan behar dugu, abegitsua eta alaia, topaketa eta bizipenen bidez pertsona babesgabeen bizimoduan laguntzeko.
- Gabonak: Argi eta itxaropen sasoia. Migratzaile, errefuxiatu eta beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonengana begirada zabaltzeko sasoia.
- Jesus ere kanpotarra zen; emigratu egin behar izan zuen. Orain, berak gure bihotza zabaltzera animatu nahi gaitu, harresiak jartzen dituzten, axolagabekeria edota gorrota sortzen duten aurreiritziak albo batera uztera. Gure zentzumenak zorroztu eta gure kristau balioekin sintonizatu behar dugu, pertsoneri begiratu eta ondo ikusteko, beren azalaren kolorea, erlijioa, jatorria edota janzkera edozein direla ere.

*“Zuen herritarren bat zorrak egin eta zuekin zituen betebeharrei aurre egin ezinik aurkitzen bada, lagundu egingo diozue eta bizirik irauteko modua emango, zuen artean bizi den etorkinari bezala”.* Lebitarrena, 25:35

**2. Bideoak.**

1. Bideoa. Gris Alconero <https://www.youtube.com/watch?v=yEAB-2rLO1A>

- Zer esan nahi digu bideo honek?
- Erlaxatuta al gaude?

2. Bideoa. Nosotros, ellos;

<https://www.youtube.com/watch?v=5YZNahUeEJO&list=PLBE90410D4F30D19E&index=272>

- Nortzuk gara gu eta haiek bideoan?
- Non kokatuko zenuke zure burua?
- Zer eragin dauka elkarbizitzan gu eta haien posizionamenduak?

### 3. Dinamikak.

#### ESTEREOTIPOEN ZUHAITZAK

1º. Estereotipo eta aurreiritziak zer diren azalduko da, eta nola baldintzatzen gaituzten beste pertsonekin erlazionatzeko orduan.

Mundua konplexua da, eta bizitza errazteko, pertsonak modu positibo edo negatiboan multzokatzen ditugu, gure pertzepzio eta usteen arabera. Estereotipoen adibideak: euskaldunak indartsuak dira, andaluziarrak alferrak dira, gazteak arduragabeak dira...

Aurreiritziak besteengandik hartutako ideiak dira, horien gaineko esperientziarik izan gabe, eta talde jakin batzuei kategoría bat edo beste emateko erabiltzen ditugu. Horrela, kategoría horiek osatzen dituzten elementuen jokabidea aurreikusten dugu, eta horren ondorioz gure jarrera bideratzen dugu. (esaterako: gazte magrebtar guztiak lapurrak dira).

2º. Kontzeptuak argi geratzen ez badira, hiztegia erabil dezakegu.

3º. Jarduera nolakoa izango den azalduko dugu: 4 pertsonako taldeak egingo dira.

- Marraztu pertsona baten tamainako zuhaitza, sustraiak, enborra eta adarrak barne.
- Adarretan, desberdintzat jotzen ditugun pertsonetikiko adierazi ohi ditugun beldur eta aurreiritziak idatziko ditugu.
- Enborrean, desberdinak diren pertsonetikiko diskriminazioa sortzen duten jokabideak idatzi.
- Zuhaitzaren goiko aldean, idatzi zein desio eta iradokizun dituzuen gizarte bidezkoago bat eraikitzeko; pertsona guztiak berdintasunez, errespetuz eta diskriminaziorik gabe tratatuko dituguna.
- Marrazkiak hormetan jarri, begiratu eta komentatu.

4º. Talde bakoitzari materiala banatuko zaio. Paper jarraia, artaziak, errotuladoreak, txartelak eta kola edo post-itak.

5º. Denon artean komentatzea. Lagungarriak izan daitezkeen galderak:

- Nola jokutzen dugu desberdintasunari aurre egiten diogunean?
- Zer egiten duzu baztertua sentitzen zarenean?
- Nork egin behar du lan kultura arteko elkarbizitza eremu bat lortzeko?
- Nola bideratu dezakegu topaketa eta kultura arteko harremana?

#### ELKARRENGANA GERTURATZEA

Talde handian, marra bat egin eta espazioa bi "eremutan" banatuko da. Pertsona bideratzaileak esaldi batzuk irakurriko ditu eta ikasle guztiak alde (marraren albo batean) edo kontra azalduko dira (kontrako aldean). Ezingo dute esaldien esanahiaren inguruan galdetu.



Esaldi bakoitza irakurri eta pertsona guztiek beren posizioa hartu ostean, bideratzaileak eztabaida txiki bat irekiko du, talde bakoitzeko kideei azalpen bat eskatuz (azkenean pertsona guztiek parte hartu dezaten saiaturaz), aukera hori zergatik egin duten.

Eztabaida hastean, galdetuko da baten batek posizioa aldatu nahi duen, eta behin betiko kontaketa egingo da (arbelan edo paper batean apuntatuko da).

## Esaldiak

1. Denok gara berdinak.
2. Arrazismoa beti da ekonomikoa: Pertsona desberdinek ez dute molestatzen; pobreek molestatzen dute.
3. Etorrinek ezin dituzte bertakoen eskubide berberak izan.
4. Zenbat eta pertsona migratzaile gehiago izan, orduan eta handiagoa izango da ziurgabetasuna.
5. Gehiago da batzen gaituena, banatzen gaituena baino.

## 4. Otoitza.

Bideoko sentrazioak eta dinamikaren proposamena emaitza jasoko ditugu, gure otoitzerako. Zer esaten digu Jesusek?

*“Kanpotar bat zuen artean bizi bada, zuen lurrean, ez egin haren kontra. Zuen artean bizi den kanpotarrari bertakoei bezala begiratu behar diezue, eta zuen burua bezala maitatuko diezue; zuek ere kanpotar izan baitzineten Egipton”.*

Lb. 19, 33;34



Jainko jauna, eskerrik asko zure maitasun unibertsalaren eredutik helarazi nahi izan diguzuen jakintzagatik. Eman iezaguzu hurkoari geure bihotza irekitzeko adorea, bere arraza, kolorea edo erlijioa edozein direla ere, jakin baitakigu gizaki guztiok zure seme-alabak garela. Eman iezaguzu axolagabekeriaren eta gorrotoaren oztopoak gainditzeko adorea, maitasunaren zibilizazioa eraikitzeko.

Amen.

## 5. Ekintza proposamena.

Zer egin dezakegu? Zein aukera ditugu mundu inklusibo eta abegitsuago bat sortzeko?

Pertsona bakoitzak txartel hauetako bat hartuko du, honako mezua dutenak:

“Ez dut nahi arraza, jatorri etniko, nazionalitate, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein faktore ZURE eta NIRE artean sartzerik, zatozen lekutik zatozela ere”.

Atzeko aldean ekintza zehatz bat idatziko dugu; migratzaile, errefuxiatu eta abarrekin abegitsuago izateko egin dezakeguna. Diru-zorroan, barik txartelaren edo mugikorraren zorroan gordeko dugu... beti aldean eramateko eta noizean behin berrirakurri ahal izateko.

## 6. Amaiera

Pertsona bakoitzari galdetu ahal zaio: Esaldi labur batean, zer da saio honetan ikasi dudana?

